

LA CAIXA FUNDAZIOA: HEALTH RESEARCH 2017

Helburua:

Laguntza honen helburua oinarritzko ikerketa biomedikoko, klinikoko edo translazionalako proiektuak finantzatzea da. Saiakuntza klinikoek ezin dute deialdi honetan parte hartu. Proiektuek aitzindariak, orijinalak eta garrantzi handikoak izan behar dute.

Lehentasunezko gai arloak:

a) Gaixotasun kardiobaskularrak.

b) **Neurozientzia** (horietako bat alboko esklerosi amiotrofikoari (AEA) buruzkoa izango da eta, zati batean, Francisco Luzón Fundazioak finantzatuko du)

c) Gaixotasun infekziosoak.

d) Onkologia.

e) **Beste arlo biomediko batzuk:** zeharkako arloetan –besteak beste, genetikan, farmakologian edo biokimikan– edo teknologia bideratzaileetan –besteak beste, bioinformatika, nanoteknologia, *big data* etab.– interes biomediko eta osasun interes handiko proiektuak izango dira.

Proiektuen ezaugarriak.

a) **A kategoriako proiektuak:** erakunde bakarrak aurkeztutakoak (Instituzio Nagusia) edo partzuergo batek. Kategoria honetako proiektuek **500.000 €-ra arteko** laguntza jaso dezakete, **3 urtera arteko proposamenetarako**.

a) **B kategoriako proiektuak:** ikuspegi transdiziplinarioa izan behar dute eta partzuergo batek aurkeztu behar ditu, nahitaez, gutxienez 2 ikerketa erakunde eta gehienez 5 dituenak. Kategoria honetako proiektuek **1.000.000 €-ra arteko laguntza jaso dezakete, 3 urtera arteko proposamenetarako**. (Bereziki baloratuko da mugak gainditzen dituzten lankidetzak sartzea)

Proposatutako proiektuek **orijinalak izan behar dute**, eta dagoeneko ezin dute finantzaketarik izan, osorik edo zati batean, laguntza bidez (dela "la Caixa" Banku Fundazioarena dela beste edozein erakunderena), proposamena aurkezteko unean.

Gastu hautagarriak:

a) Zuzeneko gastuak:

- Langileen gastuak
- Bidaia gastuak
- Kontsumigarriak eta ekipoa
- Argitalpenak

- Azpikontratazioa (B kategoriako proiektuen aurrekontuak kanpo auditoretza baten kostua jaso behar du)
 - Beste zuzeneko gastu batzuk
- b) Zeharkako gastuak (gastu orokorrak): zuzeneko gastuen % 10 gehienez (azpikontratazioa kontuan izan gabe)

Partzuergoetarako kontuan izango da:

- a) Aurrekontu osoaren % 30 arte esleitu dakieke Espainiatik eta Portugaletik kanpo erakundea duten elkartutako erakundeei.
- b) Elkartutako erakunde gisa ageri diren sozietate zibileko erakundeei proiektuaren aurrekontuaren zati bat jaso dezakete.
- c) Elkartutako erakunde gisa ageri diren enpresa eratuak ezin dute proiektuaren aurrekontuaren zatirik jaso.

Ikertzaile nagusiaren eskakizunak:

- Erakunde nagusiarekiko lotura, laguntza eskatzeko unean.
- Adinez nagusia izatea (baita IkN-arentzat ere)
- Gutxienez doktoratu ondoko 6 urteko esperientzia izatea ikerketan eta doktoregoak 2011ko urriaren 1a baino lehen amaitu izana (baita IkN-arentzat ere)

Ikertzaile bakoitzak proiektu bakarrean parte hartu dezake IN / IkN gisa. Hala ere, hainbat proiektutan jardun ahalko du lankidetzan, *partner* gisa.

Ikerketa taldeko kideen eskakizunak:

- Erakunde nagusiarekiko lotura, laguntza eskatzeko unean.

GARRANTZITSUA: Laguntza betearazi bitartean ikerketa taldeko kideek UPV/EHUrekin duten lotura amaituz gero ezingo dute gasturik egotzi, egoera horretan egon bitartean. Ikertzaile Nagusia izango da Ikerketako Errektoreordetzari proiektua gauzatu bitartean dauden baje berri emateko ardura.

Eskabideak aurkeztea:

Eskabidea elektronikoki aurkeztu behar da, honako esteka honen bidez:
<https://www.convocatoriaslacaixa.org/Convocatorias/?idioma3>

Eskaera eta hautaketa prozesu osoa, elkarriketa barne, **ingelesez** izango da. Dokumentuak edo adierazpenak ingelesez aurkeztu beharko dira. Hasieran beste edozein hizkuntzatan idatzita dagoen idazkiarekin batera, ingeles itzulpena aurkeztu beharko da. Eskabideari honako hauek erantsi behar zaizkio:

Espainiako Zerga Agentziaren Egiatagiria, Institutio Nagusiak eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duena (derrigorrezkoa). (Dokumentu hori INari emango dio Ikerketako Errektoreordetzak).

Espainiako **Gizarte Segurantzaren** edo Portugalgo agintaritzaren baliokidearen **egiatagiria**, Institutio Nagusiak proiektua aurkezteko unean aplikagarria den lan

araudiari buruzko eskakizunak bete dituela egiaztatzen duena (derrigorrezkoa).
(Dokumentu hori INari emango dio Ikerketako Errektoreordetzak).

«Aurrekontuaren banaketa» txantiloia (derrigorrezkoa).

Proiektuaren Gantt-en diagrama (derrigorrezkoa).

Insituzio Nagusiko legezko ordezkariak, INak eta Partzuergoko Insituzio Elkartu guztietako legezko ordezkariak **sinatutako adierazpenaren txantiloia** (derrigorrezkoa).

Proiektuaren kontu etikoen autoebaluazio txantiloia (derrigorrezkoa).

Onartzen dira INaren (eta IkN-aren) lanbide salbuespen izaera babesten duten **gomendio gutunak** (hautazkoa).

Proposamena azaltzen duten **grafiko eta irudi gehigarriak** (hautazkoa).

INaren eta IkN-aren curriculum vitae osoa (hautazkoa).

Osorik ez dauden proposamenak ezin dira Deialdi honetan parte hartzeko hautatu.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUren bidez aurkezten diren eskabideek zeharkako kostuen % 10 jaso beharko dute aurrekontuan.

GARRANTZITSUA: UPV/EHUren Estatutuen 315. artikuluko garapen araudia argitaratzeko agindu duen 2008ko apirilaren 29ko Ebazpenean ezarritakoa aplikatzeko, IIPak **ezingo du nomina bidez ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Aplikazioan egiaztapena egiteko jarraibideak:

Jarri zuzenean harremanetan Ikerketako Errektoreordetzarekin, egiaztapena egiteko beharrezko dokumentazioa bidali diezazugun, bai eta eskabidean datuak sartzen hasi ahal izateko egiaztapena egiteko jarraibideak ere.

Eskabideak aurkezteko epea:

2018ko martxoaren 16ko 14:00ak arte

UPV/EHUen eskabideak aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
Berehala	IN	IN-k IERI eskabidea aurkezteko asmoa duela jakinaraztea, aplikazioan alta

		emateko beharrezko dokumentazioa bidaltzeko.
2019ko otsailaren 19a	IN	"Proposatutako taldearen berrikuspenaren eranskina" bidaltzea hona: convocatorias.dgi@ehu.eus
2018ko martxoaren 12a Data horretatik aurrera, ezingo da bermatu eskabideak behar duen dokumentazioa sasoiz bidaliko denik	IN	Eskaera orria berrikusteko bidaltzea hona: convocatorias.dgi@ehu.eus IEO-k dokumentazioa bidaliko du eransteke.
2018ko martxoaren 16a	IN	Eskabide osoa hona bidaltzea, artxibatzeko: convocatorias.dgi@ehu.eus Eta deialdiaren epe amaiera (14:00)

GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusia izango da eskabidea aplikazioan aurkezteko arduraduna.

UPV/EHUren datuak eskabidea betetzeko:

Erakundearen (UPV/EHU) honako datu hauek eskatu ahalko dira eskabidea betetzeko:

- IFK: Q4818001B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g.
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa

UPV/EHUko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Ia Caixako harremana:

- Tel.: 902 22 30 40
- Helbide elektronikoa: info@fundaciolacaixa.org

Argibide gehiago:

<https://obrasociallacaixa.org/en/investigacion-y-becas/investigacion-ciencias-vida-salud/convocatoria-de-investigacion-en-salud/descripcion-del-programa>